

TESTUINGURUAK BAKARRARAZIZ

Irati Oskoz

Astigarraga

Banoa idaztera.

Banindoan idaztera.

Idazten dut, irakurtzeko gai ez naizelako.

Irakurri, zer berri?

Amesgaiztoekin ametsetan eta hala ere dantzan.

Zer irakurrarazi nahi diguzu?

Badakizu ez zarela pentsatzen ari zarena azaltzeko gai.

Tira ba,

b-o-t-a!

Tinta galdu dut, nire hatzak ez dira mugitzen.

Bihar jarraituko dut,

zeresanik,

zereginik,

zerikusirik

badudala gogoratzen dudanean;

beharbada.

Ohera noa baina ez lotara.

Ez naiz logale baina, horixe dio erlojuak.

Nirekin noa baina ez edonola.

Ez pentsa hau denik nire hautua.

Badago doinu bat,
buruarekin jarraitzen dut,
nolanahi,
larri,
nire belarriek ez dute hots hura jasaterik.

Dagoeneko narratzailea galdu dut
eta orain,
gidaria zein den ezin jakin nabilela,
faborez:
EDONOR bihurtaraz nazazu.

Har nazazu,
maneia,
nire arima sal.

...

Hasi da, ezta?

Ba, orain, buka!

Kontuz!

hau ez da edozein erregu erromantiko,
aitorpena baizik.

Erritmoa bizitu nahian
trenak sekulako ostikada eman dit,
eta zintzoa izanez,
ez dago indarberritzeko aukerarik.

Honek gutuna dirudien arren,
ez du neholako igorlerik.

Jada amaitu da jolasa,
kito.

Gogoaren preso ez den kontzeptu zehaztugabea
bilakatzea.

Hori da nire gura,
inposatutako hura.

Honela edo hala,
ez naiz finko,
tinko,
ez naiz fisiko,
hilko,
ez naiz ni, agian neu.
Beraz, hasi: has eta buka.

Zer olerki ziztrin atera hemendik?

Istorio bat kontatzera nentorren.

Egia da,
idaztera noa,
idazteagatik.